

F O L L E T O S D-10  
(Serie Roja)

- n°1 . PHEDRO'REN ALEGIAK. por Etxebarria'tar Juan Anjel'ek (Bilbao. 1965)
- n°2 . MARTIAL'EN ZIRI-BERTSOAK. Por Etxebarria Juan Angel'ek. (Bilbao 1965)
- n°3 . PHEDRO'REN ALEGIAK II. por Etxebarria Juan Angel'ek (bilbao 1966)
- n°4 . FATIMA'KO AMA BIRJIÑA TA UMEAK. Por Juan Anj'ek Etxebarria. (Bilbao. 1966)
- n°5 . EUSKAL IZTEGI LABURA<sup>(A)</sup> Etxebarria'tar Juan Anj (Bilbao 1966)
- n°6 . ESOPO'REN ALEGIAK I. Etxebarria'tar Juan Anjel. (Bilbao 1967)
- n°7 . AGUSTIN DEUNAREN ESKUTITZAK I Etxebarria'tar Juan Anjel. (Bilbao 1966)
- n°8 . GURUTZ BIDEA. Etxebarria'tar Juan Anjel (Bilbao 1966)
- n°9 . PHEDRO'REN ALEGIAK III. Etxebarria'tar Juan Anjel. (Bilbao
- n°10 . BATIKANO II-garren Batzarra'ren agiriak' Etxebarria'tar Juan Anjel. (Bilbao 1966)

D16

# PHEDRO'ren ALEGIAK



Etxebarria'tar Juan Anjel'ek

LATERATIK EUSKERATUTA

10

# **PHEURO'ren ALEGIAK**

Etxebarria'tar Juan Anjel'ek

Lateratik euskeratuta

## PHEDRO ALEGI-IDAZLEA

Jopuen semea, Mazedoni'n jaio zan ta Augusto'k jaregin eban. Erroma'ko Zidarrezko Aroko idazleen artekoa dogu, Jesukristo jaio ondoko lenengo gizaldikoa.

Ordurarte erromatar idazleak ez eben alegirik idatzi. Phedro'k, lenengoz, alegi ugariak ondu ebazan, idaz-mueta au Gerkarrengandik, Esopo'gandik batez be, jasoaz. Bere ipuin-idaztaren itzaurrean berak diñoskunez, Esopo'k itz-lauz idatzirikoetan, iturrian bezela, artu eban idaz-gai geiena.

Zein alegien elburua? Zillegizti-esparrukoak diran egiak izakien ta gizakien bidez sentiaraztea. Ta irakas-lanetan diardugun ezkeru, onuraz batera atsegiña ere emotea.

Lortu ete eban Phedro'k bere guraria? Zelan edo alan, baietz dirudi. Bera siñistuta egoan bere alegiak betiko aintzat artuak izango zirala. Uste ta itxaropen au bere hizi-aldian guztiz bete ez ba'ziran be, geroko aldietan bai, aski. Batzutan aztuta, beste batzutan nastauta, XV-garren gizaldian jatorrizko lanaren lenengo esku-idaztia idoro zan. Lengo gizaldiaren asikeran, Geigarria. Guztiz, 145 alegi inguru. Zelakoak ditugu alegiok? Lenengo, laburrak dira. Bigarren, esakeretan bakun ta tolesgabeak. Onetxek emoten dautse ipuñoi bear daben jatortasun berezia.

Egia, Phedro bakun ta tolesgabea da idaztean. Aldizka, gatz bakoa be bai, olermen eskasekoa. Baiña, alde orretatik galtzen dauana, ulertzeko erreztasun ta argitasunean irabazten dau.

Gure egunetako erdaldun batek, bakuntasunetik datoikion argitasuna dala-ta, errezago ulertuko dau Phedro, antxiñagoko beste edozein idazlea baiño, Latin-kume diran izkuntzakoentzat gure garai-alderago ta ulergarriago laterazko idazlanok. Neurri ta aldi bateraiño, jakiña.

Orain egiztabide barria saiatu bear litzake: Erroma'ko izkuntzatik ain urruti dagoan euskaldun uts-uts bat latera ikasten jarri. Ta ia, beronen korapilloaz ondo jabetu ondoren, klasi-kuen giartasun ta sakontasuna ala beraldikoen dalako berezkotasun ta argitasuna errezago egiten yakozen, Erroma-kume ez izaki.

Izkuntza askotan Phedro'ren antzera egin dira alegi ederrak. Esate baterako, Prantzi'n, La Fontaine'k, ederrak asmau ebazan. Euskeraz bere Prantzi'ko idazlearenak itzuli edo aren antzera jardun dabe batzuk. 1804-garren urtean Bizenta Mogel'ek bere IPUI ONAK agertu ebazan, Phedro ta Esopo'gandik artutako mamiña euskeraz emonda. Iturriaga'k bardin, askotan Esopo ta Phedro'gandik artuta, bere gisara ondu ebazan alegi ederrak.

Ni neu Phedro'renak lateratik zuzen-zuzenean euskeratzen alegindu naz. Or doakizuz batzuk, irakurle, bertsotan emonda. Ezerezak dirala? Jakingarriak deritxezu? Bera baiño andiagoak izan ziran beste idazle batzuk baiño arrazoi gitxiagoz ba'da be, bere idazkien garrantziaz oartuta, itzaurre ta azken-itzan, Phedro'k berak aurreztik iragarten dausku liburu guztien zoria.

Ta iñork obeak nai ba'ditu, ondu dagiazala berak.

EUSKERATZAILLEAK

## LENENGO IDAZTIA



## PROLOGUS

Aesopus auctor quam materiam repperit,  
hanc ego polivi versibus senariis.

Duplex libelli dos est: quod risum movet  
et quod prudenti vitam consilio monet.

Calumniari si quis autem voluerit,  
quod arbores loquantur, non tantum ferae,  
fictis iocari nos meminerit fabulis.

## ITZ AURREA

Esopo idazleak aurkitu zun gaia  
nik seiko neurtitzetan landu dot. Idazti  
onen onura bikoitz da: barre eragin ta  
bizitzari buruz itz zuurrak dakarzki.

Abereak ez ezik zugaitzak ere itz  
dagitela-ta inork maxioka jardun  
ba'leza, gogoratu beza gezurrezko  
alegiekin ari gerala jolastun.

---

Seiko neurtitza-Versus senarius: sei oindun bertsoa. Erro matarrak euren bertsoak neurtzeko etziran silaboka ari, oinka baiño. Oina izkin luze ta laburrak, era askotara alkartuta, osotzen eben.

## FABULA V

Vacca, capella, ovis et leo.  
Potentioris societatem fuge.

Numquam est fidelis cum potente societas:  
testatur haec fabella propositum meum.  
Vacca et capella et patiens ovis iniuriae  
socii fuere cum leone in saltibus.

Hi cum cepissent cervum vasti corporis,  
sic est locutus partibus factis leo:

«Ego primam tollo, nominor quoniam leo;  
secundam, quia sum fortis, tribuetis mihi;  
tum, quia plus valeo, me sequetur tertia;  
malo adficietur, si quis quartam tetigerit».  
Sic totam praedam sola improbitas abstulit.

## V - GARREN ALEGIA

Beia, antxumea, ardia ta leoia.  
Altsuagoaren lagunartea itzuri.

Indartsuagaz bein be ez da alkartzte zintzorik.

Nire eritxia argi da ipuin onetan.

Beia, antxumea ta ardi irain-jasankorra  
leoiaaren lagunak ziran basoetan.

Irurak oroïn itzal bat atrapau eben.

Zatiak eginda, arek: «Leoi dot izena  
ta len zatia artuko dot; sendo naz-eta  
emongo daustazue niri bigarrena.

Geiago bere ba-naz eta irugarrena  
niri bere dagokit; laugarrena ikutu  
daianak larri ibilli bear dau». Olantxe  
gaiztoak arrapakin guztia beretu.

## FABULA VI

Ranae ad solem  
Inproborum improba soboles

Vicini furis celebres vidit nuptias  
Aesopus et continuo narrare incipit:  
Uxorem quondam Sol cum vellet ducere,  
clamorem ranae sustulere ad sidera.  
Convicio permotus quaerit Iuppiter  
causam querelae. Quaedam tum stagni incola:  
«Nunc», inquit, «omnes unus exurit lacus,  
cogitque miseris arida sede emori.  
Quidnam futurum est, si crearit liberos?»

## VI - GARREN ALEGIA

Igelak eguzkiari buruz  
Gaiztoen umeak, alakoak

Esopo'k auzoko lapur baten ezta  
bikañak ikusi ta onelan darrai:

Beñola Euzkiak emaztea gura  
eban-da, igelak dei izarretarra.

Arein iskanbillak bultzata galdegin  
eutsen Iupiter'ek esparen arrazoin.

Ta urmaeleko igelen artetik  
batek esan eutson Areri bertatik:

«Oin, bera bakarra dala, legortuten  
dauz osin guztiak ta gaixuok ilten  
gara legorrean. Semerik ba'leuko,  
emendik-aurrera guri zer jazoko?»

## FABULA VII

Vulpes ad personam tragicam.  
Stultorum honor inglorius.

Personam tragicam forte vulpes viderat:  
«O quanta species», inquit, «cerebrum non habet!»  
Hoc illis dictum est, quibus honorem et gloriam  
fortuna tribuit, sensum communem abstulit.

### VII - GARREN ALEGIA

Azeriak antzerki-mozorroari.  
Leloaren ospea ezezaguna.

Azeri batek  
ustegabea  
antzerki-mamu  
bat ikus eban.  
«Ederra, gero»  
esan zun. «Baina,  
peituten yako  
buruko muiñal»  
Zoriak ospe  
ta aintza emon  
dautsez batzuci.  
Ta zentzuna non?

---

Persona tragica-Antzerki-mamu (mozorro): Antxiñako Grezi-tarrak, euren negar-irri ta ziri-antzerkietan, adierazo nai eben notinaren mozorro bategaz estaltzen zituen arpegi-buruak. Onelan ikusleak beingoan igartzen eben noren itxura egiten ari ziran jokalariaik.

## FABULA XV

Asinus ad senem pastorem.  
Pauper dominum, non sortem mutat.

In principatu commutando saepius  
nil praeter domini nomen mutant pauperes.  
Id esse verum parva haec fabella indicat.  
Asellum in prato timidus pascebat senex,  
Is hostium clamore subito territus  
suadebat asino fugere, ne possent capi.  
At ille lentus: «Quaeso, num binas mihi  
clitellas inpositurum victorem putas?»  
Senex negavit. «Ergo quid refert mea,  
cui serviam, clitellas dum portem meas?»

### XV - GARREN ALEGIA

Astoak asto-zain zarrari.  
Egokera ez, jaubea aldatu daroa beartsuak.

Txiroak sarritxu jaubea izena  
soillik aldatuten dabe jaun-trukean.  
Ipuin labur onek orixe darakus.  
Aguretxo bat ba-zan asto-zain larran.  
Bat-batean etsai-otsak bildurturik,  
eskatuten eutson astoari iges  
eiteko, atrapau ez egiezan. Ta  
astoak baretxe: "Esan, zuk, mesedez:  
Garailleak basta bi ezarri bear  
daustazala uste dozu? "Zarrak: "Ezta".  
Orduan, bata naiz bestea jaube izan,  
niri zer, eroan ezkeron nik basta?"



## FABULA XX

Canes famelici.

Stultitia plerumque exitio est.

Stultum consilium non modo effectu caret,  
sed ad perniciem quoque mortales devocat.  
Corium depressum in fluvio viderunt canes.  
Id ut comesse extractum possent facilius,  
aquam coepere ebibere; sed rupti prius  
periere, quam quod petierant contingerent.

## XX - GARREN ALEGIA

Txakur Gosetiak

Tentelkeria, geienetan, kaltegarri.

Zentzungabeko asmoak  
atze onik ez dakar.  
Galbidera be gizonak  
eroaten dauz azkar.

Txakurrak ibai-ondoan  
narru bat ikus eben.  
Eroso jateko asi  
ziran ura edaten.

Zapart eginda, ordea,  
il egin ziran gogo  
izan ebena lortuten  
eldu baiño lenago.

## FABULA XXVIII

Vulpes et aquila.

Ne magnus tenuem despicio.

Quamvis sublimes debent humiles metuere,  
vindicta docili quia patet sollertiae.  
Vulpinos catulos aquila quondam sustulit  
nidoque posuit pullis, escam ut carperent.  
Hanc persecuta mater orare incipit,  
ne tantum miserae luctum inportaret sibi.  
Contempsit illa, tuta quippe ipso loco.  
Vulpes ab ara rapuit ardentem facem  
totamque flammis arborem circumdedit,  
hostis dolore damnum ulciscens sanguinis.  
Aquila, ut periculo mortis eriperet suos,  
incolumes natos supplex vulpi tradidit.

## XXVIII - GARREN ALEGIA

Azeria ta arranoa

Andiak ez dagiala txikia ezetsi

Andikiak be begoz apalen bildurrez,  
asperkundera ager oi da-ta asmutsuagan.  
Bein baten arranoak azeri-kumeak  
bereai jaki ipiñi eutsezan kabian.

Amak, aren atzetik, iñotson arrenka  
ez egiola ainbeste negarbide sortu.  
Besteak ajolik ez leku seguruan.  
Azeriak opalmai baten zuzia artu.

opalmai=altara

Zugatz guztia garrez inguratu eban,  
bereen kaltea etsai-miñaz apenduaz.  
Arranoak, bereak ez ilteko, emon  
eutsozan lukiari bereak min-ezaz.

### FABULA XXX

Ranae metuentes taurorum proelia  
Mala publica in plebem recidunt.

Humiles laborant, ubi potentes dissident.  
Rana in palude pugnam taurorum intuens:  
«Heu quanta nobis instat perniciēs!» ait.  
Interrogata ab alia, cur hoc diceret,  
de principatu cum illi certarent gregis  
longeque ab ipsis degerent vitam boves:  
«Est statio separata ac diversum genus;  
sed pulsus regno nemoris qui profugerit,  
paludis in secreta veniet latibula  
et proculcatas obteret duro pede.  
Ita caput ad nostrum furor illorum pertinet».

### XXX - GARREN ALEGIA

Igelak zezen-liskarren bildur  
Erriko gatzak erritarren gain

Andikiak ezbaika, apalak neketan.  
Igel batek, aintziran, zezenen burruka  
ikus ta esan eban: «Curi datorkigun  
gatzal» Beste bat asi ei yakon itaunka:

Artalde-nagusitzaz zirala burrukan,  
eurakandik urruti biziten zirala,  
ta zergaitik iñoan. «Larra urrun, besteak,  
ta endakia dabe osoro bestela.

Baso-erritik iñor igeska ba'letor  
zingira onetako eskutueta,ta,  
zapaldu ta gogorki oinpetuko gaitu.  
Olan arein sumiña yatorku gainera.

## IRUGARREN IDAZTIA

## FABULA IX

Socrates ad amicos.

Fidelem ubi invenias virum?

Vulgare amici nomen, sed rara est fides.  
Cum parvas aedes sibi fundasset Socrates  
(cuius non fugio mortem, si famam adsequar,  
et cedo invidiae, dummodo absolvar cinis).  
ex populo sic nescio quis, ut fieri solet:  
«Quaeso, tam angustam talis vir ponis domum?»  
«Utinam», inquit, «veris hanc amicis inpleam».

## IX - GARREN ALEGIA

Sokrates lagunekiko

Gizon zintzoa nun aurkitul

Lagun-izena askok, baiña zintzo gitxi.  
Sokrates' ek etxe txiki bat ein eban.  
(Bere izen andia lortu ba'nengi, bai  
ilko nintzake!a bera il zan moduan!  
Betor bekaitza, ilda azkesten ba'nabe)  
Erritaren batek, oi lez, ari galdez:  
«Zu lako gizonak ain etxe estua?»  
«Beteko al dot au egizko lagunez!»

---

Sokrates: Grezi'ko jakinlari ospetsua. Atenas-inguruetan jaio zan Jesukristo jaio aurreko 468-garren urteantsu. Jainkoak ezetsi ta gazteak usteltzen ebazalako aitzakiagaz bere etsaiak Eliastarren auzitegian salatu eben. Epaikariak otzeri-belarra edan-erazo eutsoen. Lagun zintzoak bultzata, iges egin eikean espetxetik. Alan be, legea betetzearren bertan gelditu zan lasai eriotzaren begira. Bere erriarenganako on-zaletasun ta zintzotasunagaitik izen andia lortu eban bizitza-aldian ta eriotza-ondoan.

BOSTGARREN IDAZTIA

## F A B U L A I X

### Taurus et vitulus Ne sus Minervam

Angusto in aditu taurus luctans cornibus,  
cum vix intrare posset ad praesepia,  
monstrabat vitulus, quo se pacto flecteret.  
«Tace»: inquit «ante hoc novi, quam tu natus es»  
Qui doctiorem emendat, sibi dici putet.

## IX - GARREN ALEGIA

### Zezena ta txekorra Txarriak Minerba'ri itzik ez.\*

Zezen bat ate estu batean  
adar-indarka bere askara  
eltzeko. Txekor batek inotson  
makurtuteko alakotara.

Zezenak barriz: «Zagoz ixillik;  
zu jaio baiño len dakit nola».  
Jakin bat ondu nai dunak pentsa  
bei au beretzat esana dala.

---

\* Minerba: Grezitar eta Erromatarren Mitolojian jakintza, antze ta guduaren jainko-emea. Zuurtasunak gidatutako adorea adierazten eban. Bulkano'k Jupiter'i burua aizkorakada batez idegi eutson. Beronen garaunetik goitik bera ederrez jantzita urten eban. Atenas irazan-orduan berak emon eutson izena (gerkeraz Atene bere eritxon-da), oliondoa, bake ta aberastasun-ezaugarria, jartzen ebala

GEIGARRIA

## F A B U L A X V I

Gallus lectica a felibus vectus.

Nimiam securitatem saepe in periculum homines ducere.

Feles habebat gallus lecticarios.

Hunc gloriosum vulpes ut vidit vehi,  
sic est locuta: «Moneo praecaveas dolum:  
istorum vultus namque si consideras,  
praedam portare iudices, non sarcinam».

.....

Postquam esurire coepit saeva societas,  
discerpsit dominum et fecit partes facinoris.

## XVI - GARREN ALEGIA

Ollarra oe-burdian katuak eroanda

Larregizko ondasunak arriskuan jartzen ditu gizonak

Ollar batek bein katuak zitun  
oe-eramaille. Ain andikiro  
joiala ikusi ta azeri batek  
olan ein eutson: «Zu, kontuz, gero.

Orrein itxura begiratuta  
zama bat barik arrapakiña  
daroela uste izateko da»  
Lagun gaiztoai jateko-miña

egin yaken ta jaun ta jaubea,  
euren obenak il-bearreko,  
abarrakitu ta gero danen  
artean uzi eben jateko

Abarrakitu (L.) zati egin  
Uzi (L.) banandu, banatu.

## FABULA XXII

Pastor et capella.

Nil occultum esse, quod non reveletur.

Pastor capellae cornu baculo fregerat:  
rogare coepit, ne se domino proderet.  
«Quamvis indigne laesa, reticebo tamen;  
sed res clamabit ipsa, quid deliqueris».

## XXII - GARREN ALEGIA

Ez dago ezer ezkaturik, agertuko ez danik

Artzain batek auntzari  
makillagaz adarra  
autsi eutson eta asi  
yakon, arren, okerra

bere nagusiari  
ez egiola agertu.  
«Bidegabez minduta  
arren, nagoke mutu.

Alan ta guzti bere,  
gauzak berak ozenki  
azalduko dau zelan  
jokatu dozun gaizki»

## EPILOGUS

Hoc, quaecumque est, Musa quod ludit mea,  
nequitia pariter laudat et frugalitas;  
sed haec simpliciter, illa tacite irascitur.

## AZKEN - ITZA

Nire gogai-argiak ontzen dauan oro,  
dana-dala, gaizto eta onak bardin  
goratu daroe; oneik, bai, zintzoro.  
Beste araik, barriz, ixillean sumin.



# LEKU-NOTIÑEN

<u>IZENAK</u>	<u>ORRIALDEAK</u>
Atenas	17-21
Atene	21
Bulkano	21
Eliastarrak	17
Esopo	7-9
Iupiter	9-21
Minerba	21
Sokrates	17